

Ordizian, 2015eko azaroaren 26an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EH Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EH Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako EH Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M.Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK: Guztiak izan dira.

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi

AZTERTUTAKO GAIAK

- 1.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 2.- Azaroaren 25erako adierazpen instituzionala "emankumeenganako indarkeriaren aurkako nazio-arteko eguna"
- 3.- Udalaren jardunetan genero zeharkakotasuna ezartzeko akordioa.



4.- Garapenerako lankidetza laguntzak 2015.

5.- Ordiziako E.H. Bilduk aurkezturiko mozioa, Foru Aldundiaren aurrekontu parte-hartzaileei buruzkoa.

6.- Galde-erreguak

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:04ean

AMAIERA: 19:56ean



## 1.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatzarra.



## 2.- Azaroaren 25erako adierazpen instituzionala "emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazio-arteko eguna"

### Proposamena

Azaroaren 25a dela eta, data horixe izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak "Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna", gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria adierazpenekiko, zeinahi ere den (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai halaber sexismo-modu guztiekiko, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen arabera rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea, besteak beste. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela eta, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politikak baliatzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta gizonezkoen, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztiekiko tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen gizartea eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka agertzearekin batera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde argiro azalduko den gizartea. Gure aldarrikapena da pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizartea. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, berorren esanahia ere da pertsona bakoitzak, berdintasunik ezak dakarren mugarik gabe, bere bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratua onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeko orduan, eta horretarako gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:



- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.
- Eta herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal etakolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, baita azaroaren 25a dela eta burutukodiren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai halaber gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako 'Beldur Barik' ekimenean.

### Eztabaida

#### Alkatea

*(Proposamena aurkeztu du)*

#### Iñaki Dubreuil

Beste udal konpromiso bat gehiago da, ahalik eta kontsentsu handiena bilatzeko bidean.

### Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 3.- Udalaren jardunetan genero zeharkakotasuna ezartzeko akordioa.

#### Proposamena

ORDIZIAKO UDALAREN JARDUNETAN GENERO ZEHARKAKOTASUNA EZARTZEKO AKORDIOA onartzea

Aurreko mendeko 70eko hamarkadatik hona, gizon eta emakumeen berdintasun esparruan aurrerapenak egin dira. Hala ere, datu estatistiko zein ikerketek agerian uzten dute desberdintasunek oraindik ere indarrean jarraitzen dutela. Gainera, krisi eta murrizketa ekonomikoen garaian, desberdintasun horiek areagotu egin dira. Batzuetan, Administrazio Publikoen esku-hartzeek gizon eta emakumeen arteko baliabideen banaketan emaitza negatiboa eragiten dute, beren jardueretan ez dutelako genero ikuspegia, helburu egonkor eta esplizitu



moduan barneratu.

Amsterdameko Itunaren onarpenetik (1997), gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako politikek garapen handia izan dute. Hasiera batean politika horien izaeran, diskriminatzeke debekua gailentzen zen. Gaur egun, aldiz, gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko guztiok ekiteko betebeharra nagusitzen da.

Itun batetik bestera pasatzeak aurrerapauso handiak suposatu ditu, Lege Diskriminatzaileen ezabatzean, Berdintasun Politiketarako Organismo eta egitura espezifikoaren eraketan, Ekintza Positiboaren sustapen eta ezarpenean, Aukera Berdintasunerako Plan eta Programaren osaketa eta gauzatzean, eta bukatzeko, Genero Mainstreaming estrategiaren sustapenean.

Udalak mainstreaminga estrategiarekiko konpromisoa hartu behar du:

.-Indarrean dagoen legedia betetzeko

- Amsterdameko Itunaren (1997)
- 4/2005 legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, 10. 2. artikulua
- 3/2007 lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, 15. artikulua.
- Europako tokiko ituna emakumeen eta gizonen berdintasuneko, 5. printzipioa, 4. artikulua

- Ordiziako II. Berdintasun Planeko lan ardatz estrategiko bat betetzeko

Ordiziako II. Berdintasun planean estrategikotzat jotzen da: gobernantza eta mainstreaming lan-ardatza.

Politika publikoetan Genero ikuspegia txertatzea. Eta kudeaketarako egitura egokia jasotzen du.

- Genero desberdintasunak murrizteko bidean urratsa sendoak emateko.

Hori guztia dela, eta 2015eko urriaren 27an egindako Berdintasun Delegazioko aldeko onarpenarekin, Plenorako ondorengo AKORDIO PROIEKTUA onartzea proposatzen da:

ORDIZIAKO UDALAREN JARDUNETAN GENERO ZEHARKAKOTASUNA EZARTZEKO AKORDIOAREN sinadura onartzea



## Eztabaida

### Alkatea

Nazioartean zenbait itun egon dira, genero ikuspuntua hedatze aldera. Ordizian ere eman dira zenbat pauso. Baina inplikazio politiko eta tekniko handitu behar da. Konpromiso politiko eta instituzionala berretsi nahi dugu.

### Iñaki Dubreuil

Garrantzitsuena da Udalak hartzen duen konpromiso etiko, politiko eta tekniko, egoera politikoa alde batera utzita. Berdintasun proiektua udal egituran eta jardueran integratzen da kontsentsu handi batekin, eta nahiz eta ordezkartzarik ez lortu, hauteskondeetara aurkeztu ziren alderdi guztietara zabaltzeko ahalegina egingo da.

## Bozketa

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



### 4.- Garapenerako lankidetzak laguntzak 2015.

#### Proposamena

Kooperaziorako proiektuak garatzeko gobernu kanpoko erakundeei diru laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin bat egin da, eta 2015 ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 13 proiektu aurkeztu dira.

Honetarako aurrekontuaren partida 75.000 eurokoa da.

Proiektuak aztertu ondoren, eta 2015-11-03 Gizarte Ongizateko delegazioa eta 2015eko abenduaren 18ko Osoko Bilkurarako gaien batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

Akordio proiektua:



Ondoren aipatzen diren diru-laguntzak onartzea, honako erakunde eta proiektuei:

-1- NAZIOARTEKO ELKARTASUNA - SOLIDARIDAD INTERNACIONAL. Escuela para la Libertad de las Mujeres del Estado de Oaxaca.

Diru-laguntza: 11.760,00 euro

-2- MANOS UNIDAS. Promoción de la autonomía de las mujeres de 6 municipios de los Departamentos de San Vicente y Sonsonate, a través de políticas municipales de igualdad de género y generación de ingresos. Fase II.

Diru-laguntza: 10.823,00 euro

-3- MEDICUS MUNDI GIPUZKOA. Mejora del ejercicio de los derechos de las mujeres de 4 departamentos del estado regional de Tigray.

Diru-laguntza: 11.932,00 euro

-4- MUGEN GAINETIK. Impulsando alternativas de desarrollo justo y sostenible en comunidades indígenas y campesinas del Sur de Guatemala, desde la tenencia y gestión colectiva de tierras y bosques. Fase II.

Diru-laguntza: 10.414,00 euro

-5- FUNDACIÓN MUNDUBAT-MUNDUBAT FUNDAZIOA. Fortalecido el enfoque de la Economía Feminista y la incidencia de la Red Mesoamericanas en la agenda pública de El Salvador.

Diru-laguntza: 11.758,00 euro

-6- ONG TAUPADAK. Empoderamiento de las indígenas chimanes para mejorar la alimentación y la salud de sus familias.

Diru-laguntza: 6.381,00 euro

-7- GIPUZKOAKO OSCAR ROMERO SOLIDARITZA BATZORDEA. Tacubako udalerriko nekazal eremuko neska-mutikoak Haur Hezkuntzara sartzea sustatzea.

Diru-laguntza: 11.932,00 euro

Ondoren aipatzen diren erakundeek aurkeztutako eskaerak ukatzea:

1. EUSKAL HERRIKO SERSO SAN VIATOR. Favorecer el acceso al mercado laboral de las/los jóvenes desescolarizadas/os a través de ciclos formativos de tres años de duración en Fontanería en Banfora (Burkina Faso).

2. BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA - ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ y APROCSAL. Mejora de las condiciones sociales y económicas de las mujeres indígenas de la comunidad rural Hacienda María, en el departamento de Chimaltenango, Guatemala.



3. ACTIV@S POR UN MUNDO SOLIDARIO AMS-MSH MUNDO SOLIDARIOA HELBURU. Gaitasun urrituak dituzten gazteen integrazioa lortzen Diriamban
4. HERRIAK ELKARLANEAN - MISIONES DIOCESANAS. Mantako barnetegia osatzeko beharrezko baliabideak. Benin.
5. DOA. DENOK OSASUNAREN ALDE. Fortalecimiento del sistema de salud del Departamento del Beni, en el ámbito asistencial y de formación. Bolivia.
6. ASOCIACION DE OBRAS CARITATIVAS DE SANTA ROSA. Jornadas Médicas Octubre 201

### Eztabaida

#### Alkatea

*(Proposamena azaldu du).*

#### Iñaki Dubreuil

Sei proiektu kanpoan geratu dira, ez dituztelako beharrezkoak ziren puntuak lortu.

### Bozketa

Aldekoak:13(EAJ/PNV5,Ordiziako EH-Bildu5,Ordizia-Orain 2, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



5.- Ordiziako E.H. Bilduk aurkezturiko mozioa, Foru Aldundiaren aurrekontu parte-hartzaileei buruzkoa.

### Proposamena

Foru Aldundiaren aurrekontu parte hartzaileen proposamena

#### JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegaldian, herritarron parte-hartzeari lehentasun estrategikoa eman zion foru Aldundiak, eta Gipuakoan burutu den parte-hartze prozesu kopururik handiena bultzatu zuen. Horien artean,





herriarrek erabakitako proiektuak Diputazioko aurrekontuetan txertatzeko prozesuak egin ziren eskualde guztietan.

Diputazioak aurrekontu parte-hartzaileak bertan behera uztea erabaki du, EH Bilduren Gobernuak eta herriarrek lau urte hauetan kultura parte-hartzailearen alorrean eraiki dutena erabat zapuztuz.

2014an parte-hartze prozesua lau eskualdetara zabaldu zen eta hamaika proiektu onartu ziren, tartean, Oianguko garapena eta Herri Antzokiko proiektua.

Prozesuko proiektu horiek aurten gauzatzeko, guztira, bi milioi euroko partida onartu zuten aho batez Batzar Nagusiek. 2015ean parte-hartze prozesua eskualde guztietara zabaldu zen datozen lau urteotan gauzatu diren proiektuak zehazteko, 20 milioi euro jartzeko konpromisoarekin.

Foru Aldundiak dena bertan behera utzi du.

## ESKAERA

Ordiziako Udalbatzari eskatzen zaio:

1.-Foru Aldundiari aurrekontu parte-hartzaileen prozesua berrartu dezala eskatzea.

### Eztabaida

#### Idazkaria

*(Azaldu du proposamena gai-zerrendatik at dagoenez, Udalbatzak onartu beharko lukeela, gehiengo osoz, proposamen hori aztertu eta bozkatuko den)*

#### Igor Eguren:

Lau mozio sartzeko asmoa geneukan. Zenbait azalpen jaso ostean, bat (talidomida) hurrengorako utziko dugu eta besteak galde-erregutan aipatu. Euskararen egunari buruzkoa erretiratzeko dugu, baina eskatzen dugu astelehenean testu bat adostea bozeramaleen batzordean.

Honakoa mantentzen dugu, aurrekontuekin lotua dagoelako eta urtea amaitzera doalako.

*(Proposamena aurkeztu du).*

#### Alkatea:

Abstenituko gara, baina Foru Aldundiarekin bilera bat eskatuko dugu, haien asmoak ezagutzeko.



## Bozketa

### *Mozioa bozketara pasatzeari buruzkoa*

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

### *Mozioaren testuari buruzkoa*

Aldekoak: 7 (Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



## 6.- Galde-erreguak

### Igor Eguren:

Udalbatzarrak bideoz grabatzen ari garenez, grabazioak pasako dizkizuegu. Oraindik ez da posible izan arazo teknikoak medio. Udala bera noiz hasiko da grabazioak egiten?

### Alkatea:

2016ko aurrekontuetan partida bat txertatuko dugu eta enpresa bat kontratatuko dugu..

.....

Igor Egurennek zinegotzien lokalen behin betiko kokapenez galdetu du eta Alkateak erantzun du laster finkatuko dela horien kokapena.

.....

Igor Egurennek galdetu du OTAko langile berriak lortzeko deialdiari buruz.

Alkateak erantzun du gai hori zehazteke dutela oraindik.

.....



Igor Egurenek esan du "Movember" kanpaina amaituko bada ere, horren ostean gaia jorratzen jarraitu beharko lukeela Udalak.

.....

Igor Egurenek galdetu dionean ia trafikoan aldaketak egitea erabaki duen, Alkateak erantzun du merkatarien eskaera batzuk daudela eta mahai bat osatu dela, dagokion erabakia hartze aldera.

Igor Egurenek galdetu du ea, erabakitzerako orduan, aparkalekuei buruzko txostena kontuan izango den eta Alkateak erantzun du horri dagokionean aztertuko dela eta jakin behar dela ia proposamenak bideragarriak diren, ekonomikoki.

.....

Adur Ezenarrok nahi du jakin auzo-konpostagune berriak noiz jarriko diren.

Alkateak esan du lehenik auzokideekin bilerak egin behar dituztela.

.....

### Izaro Intsausti

Aurtengo aurrekontuko soberakinak direla eta, eskatzen dizuet konpromisoa hartzea dirua gordetzeko proiektu horietara bideratzeko, hurrengo aurrekontuetan.

### Kontuhartzailea:

Erabakitzen bada proiektua egitea, gelditzen da dirua. Bestela, galdu egiten da.

.....

Belen Maizak galdetu duenean larrialdietarako laguntzetarako aurrekontua agortu den, Iñaki Dubreuilek erantzun du partida handitu dutela baina urtea amaitzeko 13.000 euro inguru beharko direla eta, osotara, beharko dugula Jaurlaritzak jartzen duenaren bikoitza.

.....

Izaro Intsaustik eskatu du udalaren lokalen berrantolaketarako bere taldeak egin duen proposamena jorratzea hurrengo Udalbatzarrean.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

